


**GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEAK ALDI BATEZ BABESTEKO EUSKAL
PROGRAMA**

**JARRAIPEN-MISIOA
HONDURAS 2019**



*COFADEH-ko egoitza (Comité de Familiares Detenidos Desaparecidos en Honduras)
Tegucigalpa*

2019ko urtarrilaren 27tik otsailaren 1a arte

«Alai jarraitzea da erresistentzia- eta borroka-ekintzarik handiena»

Berta Cáceres

Txostenaren egilea:



Giza Eskubideen Defendatzaileak Aldi Batez babesteko Euskal Programa:



Laguntzaileak:



Bilbo, 2019.

EDUKIEN AURKIBIDEA

SIGLAK.....	4
ESKER ONA.....	5
SARRERA.....	6
ORDEZKARIEN TALDEA.....	7
BILERAK.....	8
EGOERA.....	10
Geopolitika	
Estatu-kolpeak eta hauteskunde-prozesu zalantzagarriak	
Militarren eragina herrialdean	
Karabana migratzaileak	
GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEEN EGOERA.....	15
Arriskuak eta jazarpen-moduak	
Giza eskubideen defentsako sektoreak	
- Lurra, lurraldea eta ondasun erkideak	
- Adierazpen-askatasuna eta informazioa eskuratzeko askatasuna	
- Emakumeen giza eskubideak	
- Sexu- eta genero-aniztasuna	
Kasu espezifikoak	
- Hondurasen desagerrarazi dituzten Atxilotuen Senideen Batzordea (COFADEH)	
- La Paz departamentuko indigenen eta nekazarien komunitateak	
- Berta Cáceres eta haren familia	
GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEAK BABESTEAK.....	23
Babeserako sistema nazionala	
Ministerio Publikoa	
Giza Eskubideen aldeko Hondurasko komisario nazionala (CONADEH)	
Diplomaziako kideak	
Giza eskubideen eta giza eskubideen defendatzaileen egoeraren egiaztapena eta jarraipena egiteko nazioarteko misioak	
Giza eskubideen defendatzaileak babesteko programak	
ONDORIOAK.....	27
BIBLIOGRAFIA.....	29
ERANSKINA.....	32

SIGLAK

AECID: Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentzia

CEDAW: Emakumearen aurkako bereizkeria mota guztiak ezabatzeari buruzko hitzarmena (ingelesezko siglak)

CEMH: Hondurasko Emakumeentzako Ikasketa Zentroa

CICR: Gurutze Gorriaren Nazioarteko Batzordea

CIDH: Giza Eskubideen Batzorde Interamerikarra

CNTC: Nekazarien Koordinazio Nazionala

COFADEH: Hondurasen desagerrarazi dituzten Atxilotuen Senideen Batzordea

CONADEH: Giza Eskubideen aldeko Hondurasko komisario nazionala

COPINH: Hondurasko Herri Elkartearen eta Elkarte Indigenen Herritar Kontseilua

CSJ: Justizia Gorte Gorena

FUSINA: Erakundearteko Seguratasunaren Indar Nazionala

LGTTBI: Lesbianak, Gayak, Transexualak, Transgeneroa, Bisexualak eta Intersexualak

LVC: La Vía Campesina

GGI: Giza Garapenaren Indizea

PMOP: Ordena publikoko polizia militarra

GNBP: Garapenerako Nazio Batuen Programa

MILPAH: La Paz departamentuko indigena lenken mugimendu independentea

MP: Ministerio Publikoa

OACNUDH: Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen Goi-komisarioaren Bulegoa

OEA: Amerikako Estatuen Erakundea

LANE: Lanaren Nazioarteko Erakundea

OME Osasunaren Munduko Erakundea

GGKE: Garapenerako gobernu kanpoko erakundea

SIMOREH: Giza eskubideei buruzko gomendioak Hondurasen betetzen diren egiaztatze sistema

TIGRES: Inteligentziako soldaduak eta seguratasunaren arloko erantzun bereziko taldeak

TSE: Hauteskunde Auzitegi Gorena

ZEDES: Garapen ekonomikorako eremu bereziak

ESKER ONA

EAEko programa elkartasun politikoa adierazteko tresna da, eta mehatxuen eta jazarpenaren mendeko egoeretan jarduten duten giza eskubideen defendatzaileak babestea du helburu. Horretan ahalegintzen gara Euskal Autonomia Erkidegoan babesten ditugun aldian, eta abiapuntu horretatik proposatzen dugu ordezkariak lurra bisitatzeko.

Era berean, modu bat da euskal gizarteari erakusteko nolako egoeran aritzen diren giza eskubideen defendatzaileak, liskarrak izaten diren tokietan. Eguneroko lan hori, duintasun eta ausardia laudagarri egiten dena, ekarpen baliagarria da gure gizartearen eraldatzeko prozesuetarako.

EAEko ordezkariok eskerrak eman nahi dizkiegu giza elkartei eta Hondurasko gizarte- eta herri-mugimenduei ere, egindako harrera apartagatik eta haien salaketa, erresistentzia eta proposamenak gurekin partekatzeagatik. Esker bereziak eman nahi dizkiegu Hondurasen desagerrarazi dituzten Atxilotuen Senideen Batzordeari, La Vía Campesina nazioarteko mugimenduari eta Nekazarien Koordinazio Nazionalari.

Eskerrak, halaber, Hondurasko erakundeei eta nazioarteko eragileei bisitaldi honetan zehar laguntzeko izan duten prestutasunagatik eta eskainitako denborarengatik. Eskerrik asko giza eskubideen egoerari buruz duten ikuspegia guri jakinarazteagatik.

Honduras pobreziarik eta indarkeriarik gabeko herrialdea eraikitzen lan egiten duten pertsona guztiei elkartasuna eta laguntza erakutsi nahi dizkiegu beste urte batean ere.

Lurra ama da, bizitza ematen digulako.

Lurra sentitzen badugu, ez gara bakarrik egongo, berak ematen baitigu borrokarako indarra.

Indigena lenka, La Paz departamentukoa

SARRERA

GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEAK BABESTEKO EUSKAL PROGRAMA

Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzaren bitartez, Eusko Jaurlaritzak *Giza eskubideen defendatzaileak babesteko programa* martxan du, 2011z geroztik¹. Programa horren bidez, Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegoan aldi batez babesten ditu giza eskubideen aldeko defentsan jarduteagatik jazarpena eta mehatxuak jasaten dituzten gizarte-erakundeetako pertsonak. Nazioartean dituen laguntza-sareak zabaltzeko eta indartzeko asmoz, honako ekintza hauek proposatzen dira Euskadin emango duten aldirako:

1. Laguntza psikosoziala. Babesaren ikuspegi integrala lantzen du, eta honako alderdi hauek sartzen dira: alderdi pertsonalak, antolamenduari buruzkoak eta politikoak; indarkeria politikoaren inpaktuengatik arreta berezia behar duten pertsonentzako laguntza psikoterapeutikoa; eta babespean dauden pertsonen zainketa, herrialdetik aldi batez irten eta berriro sartu behar izateagatik.
2. Agenda politikoa. Helburua nazioarteko sareak zabaltzea eta indartzea da, pertsona horiek eta haien erakundeak instituzionalki eta politikoki babesteko. Praktikan, sare horiek babes-mekanismo gisa jarduten dute; hala, jendeak modua du lurraldean giza eskubideak babesten jarraitzeko. Horrez gain, programak balio du euskal herritarrei eta EAEko erakunde publikoei — baita Espainiakoei eta Europakoei ere— erakusteko zein den giza eskubideen defentsan lanean aritzen diren erakundeen mehatxu-egoerak eta zein diren haien aldarrikapenak.
3. Prestakuntza-agenda. Haien kezkek eta interesak zein diren ikusita, asmoa da prestakuntza espezializatua ematea giza eskubideen defentsaren eta sustapenaren arloetan. Egin duten lanagatik aintzatespena jaso duten pertsonak direnez, txostengile gisa ere parte hartuko dute esparru akademikoetan eta sozialetan.
4. Babesteko laguntza. ANSUR kolektiboko kideek ere parte hartzen dute, defendatzaileak irteeran, egonaldian eta itzuleran babesteko eta haien segurtasuna bermatzeko.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak ere parte hartzen du programan, eta CEAR-Euskadi batzordeak koordinatzen du. Hautaketa Batzordearen bitartez, honako hauek ere programaren garatzaileak dira: Eusko Jaurlaritzaren Kanpo Harremanetarako Zuzendaritza, Hegoa Institutua (Euskal Herriko Unibertsitatea), Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua (Deustuko Unibertsitatea), Euskal Autonomia Erkidegoko GGKEen Koordinakundea eta Giza Eskubideen eta Bake Hezkuntzaren Elkarten Foroa. Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen eta Berdintasun Batzordeak ateak zabaltzen dizkie programaren bidez Euskadin babesten diren pertsoneri, eta haien herrialdeetara itzuli ondoren egiten diren jarraipen-bisitaldietan ere parte hartzen du.

ITZULI ONDORENGO JARRAIPENA, HONDURASKO MISIOAN

Hondurasen desagerrarazi dituzten Atxilotuen Senideen Batzordeko pertsona batek parte hartu zuen 2018an, Babesa emateko EAEko Programan. Lehenago, 2016an, Hondurasko beste bi defendatzailek ere parte hartu zuten. Bata COFADEHkoa zen; eta bestea, INHESCOkoa.

Pertsona horiek Hondurasera itzuli eta gero², EAEko ordezkari batzuk Hondurasera joan ziren 2019ko urtarrilaren 27tik otsailaren 1a arte, hainbat xede betetzeko asmoz: norberaren egoeraren eta komunitatearen egoeraren jarraipena bertan egiteko, babes-sarea indartzeko eta EAEko Gobernuaren, Legebiltzarren eta antolatzaileen babesa erakusteko. Programaren bidez aurreko aldietan babestu ziren gainerako pertsonen jarraipena ere egiteko baliatu ziren bisitaldiak.

¹<http://www.euskadi.eus/defensores-y-defensoras-de-los-derechos-humanos-proyecto/web01-s1lehbak/es/>

²EAEko ordezkariak beste bisitaldi bat egin zuten 2017an. Asmoa 2016an babestu ziren defendatzaileen jarraipena Hondurasen bertan egitea zen (defendatzaile bat COFADEHkoa zen; eta bestea, INHESCOkoa). Ikus txostena hemen: <https://www.cear-euskadi.org/producto/informe-de-la-mision-de-seguimiento-a-honduras-2017/>

Txosten honetan bildu ditugu bisitaldian jaso genituen edukirik garrantzitsuenak, besteak beste, herrialdearen egoera zein den, zer bilera egin ditugun eta nolako egoeran bizi diren giza eskubideen defendatzaileak. Amaierako atalean, ordezkarien gomendioak eta iritziak jasota daude, han behatutako egoerari buruz.

ORDEZKARIEN TALDEA

EUSKO JAURLARITZA

Monika Hernando Porres, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendaria

Maite Garmendia Eguinoa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia

Noemí de la Fuente, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia

EUSKO LEGEBILTZARREKO GIZA ESKUBIDEEN ETA BERDINTASUN BATZORDEA

Ana Isabel Oregi Bastarrika, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubide eta Berdintasun Batzordeko burua

Iñigo de Iturrate Ibarra, Euzko Abertzaleak, Nationalistas Vascos

Oihana Etxebarrieta Legrand, Euskal Herria Bildu

Eukene Arana Varas, Elkarrekin Podemos

Rafaela Romero Pozo, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak

Carmelo Barrio Baroja, Grupo Popular Vasco-Euskal Talde Popularra

Eduardo Mancisidor Artaraz, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordeko letradua

GIZARTE ELKARTEAK ETA GIZA ESKUBIDEAK

Mundubat Fundazioa: Eneko Gerrikabeitia Zenarruzabeitia

Comisión de Ayuda al Refugiado en Euskadi (CEAR-Euskadi): Patricia Bárcena García

Comisión de Ayuda al Refugiado en Euskadi (CEAR-Euskadi): Leire Lasa Fernández

BILERAK

Tegucigalpa

Giza eskubideen aldeko erakundeak, gizarte-mugimenduak eta herritarren mugimenduak

- Emakumeen Eskubideen Zentroa (CDM)
- Hondurasko Emakumeentzako Ikasketa Zentroa (CEM-H).
- Demokraziarako Ikasketa Zentroa (CESPAD)
- Pertsona torturatuak eta haien senideak prebenitzeko, artatzeko eta gizarteratzeko zentroa (CPTRT)
- CILAH
- Ingurumenaren aldeko Siria Ibarreko Batzordea
- Hondurasen desagerrarazi dituzten Atxilotuen Senideen Batzordea (COFADEH)
- Kontinuismoaren aurkako Konbergentzia (CCC)
- Nekazarien Koordinazio Nazionala (CNTC)
- Kontseilu Indigena Lenka
- Ocotepeque departamentuko Giza Eskubideen Defendatzaileak (DEOCODERH)
- Ecuménicas por el derecho a decidir
- La Vía Campesina (Honduras)
- Madre Tierra
- Ingurumenaren aldeko Santa Barbara udalerriko Mugimendua (MAS).
- Partido Libertad y Refundación [Askatasunaren eta birsorreraren aldeko alderdia]
- Giza Eskubideen Hegoaldeko Defendatzaileen Sarea (REDEHSUR)
- Lempira Dirua Defendatzeko Sarea
- El Paraíso Departamentuko Defendatzaileen Sarea
- Santa Bárbarako Emakumeen Sarea
- Giza Eskubideen aldeko Hondurasko emakume defendatzaileen sare nazionala
- Cattrachas Sare Lesbikoa

Giza eskubideen aldeko nazioarteko erakundeak eta lankidetzak

- Mugarik gabeko abokatuak (Kanada)
- Diakonia (Suedia)
- Fondo de Emergencia para protección de defensores/as de derechos humanos en Honduras (Centro de Estudios para la Mujer Honduras – CEMH-) [Giza Eskubideen Defendatzaileak Hondurasen babesteko Larrialdiko Fondoa (Hondurasko Emakumeentzako Ikasketa Zentroa, CEMH-)]
- Mundubat Honduras Fundazioa
- Peace Brigades International (PBI) – Hondurasko proiektua
- PeaceWatch (Suitza)
- We effect

Hondurasko erakunde publikoak

- Kongresu Nazionaleko Giza Eskubideen eta Justiziaren Batzordea: Kongresuko Presidenteordetza, Giza Eskubideen eta Justiziaren Batzordeko presidentea, eta honako alderdi hauek, beren ordezkarien bitartez: Partido Alianza Patriótica [Aliantza Patriotikoa], Partido Nacional [Alderdi Nazionala], Partido Liberal [Alderdi Liberala] eta Partido Libre-Partido Libertad y Refundación [Askatasunaren aldeko alderdia-Askatasuna eta Birsorrera]
- Giza Eskubideen Komisario Nazionala (CONADEH): Migratzaileen, emakumeen, GIBa duten pertsonen, sexu-aniztasunaren eta desgaitasunen koordinazioak.
- Ministerio Publikoa: fiskalondokoa, Lekukoen Babeserako Programako langileak, Lege Dibisioko burua, Hitzarmenak eta Nazioarteko Gaien Unitateko koordinatzailea, Fiskaltzako zuzendariorde orokorra.
- Giza Eskubideen Idazkaritza Nagusia: Giza Eskubideen ministroa, Giza Eskubideen ministrordea; Babeserako Sistema Nazionaleko zuzendari nagusia

Diplomaziako kideak

- Espainiako Enbaxada, enbaxadorea
- AECID Garapenerako Lankidetzaren Espainiako Agentziako zuzendaria

Nazioarteko erakundeak

- Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen Goi-komisarioaren Bulegoa (OACNUDH): herrialdeko ordezkaria

Beste batzuk

- Berta Cáceres-en senideak

EGOERA

Hondurasko azalera 112.492 kilometro koadrokoa da. Lurralde 18 departamentutan eta 298 udalerritan antolatuta dago. Hiriburua Distrito Central da, eta Tegucigalpa eta Comayagüela hiriek osatzen dute.

Herrialdean 8.261.000 pertsona bizi dira (% 51,7 emakumeak dira; eta % 48,3, gizonak³). Askotariko arrazak eta etniak daude: mestizoak, 6 herri indigena (lenkak, miskitoak, tolupanak, tcor ti' etniakoak, pech etniakoak eta Tawahkakoak), garifunak eta ingelesa ama-hizkuntza duten beltzak. Biztanleen % 46,7 hiri-eremuetan bizi dira; eta % 54,1, nekazaritzako eremuetan. Nekazaritzako eremuetan askoz ere zailagoa da bizitzea, bizi-baldintzak oso eskasak direlako, eta pobrezia nagusi delako: ez dago edateko urik, etxebizitzetan ez dago behar bezalako saneamendurik, pertsonak pilatuta bizi dira etxebizitzetan, eta ez dago argindar-zerbitzua erabiltzerik, beste arazo larri batzuen artean.

Estatistikako Institutu Nazionalaren datuen arabera, herritarren % 68 **pobrezian** bizi dira; eta haietatik % 44, pobrezia larrian. Gizartean desparekotasun handia dago, baita **genero**-desparekotasuna ere; hortaz, **emakumeen egoera egituran gizonena baino okerragoa da**, emakumeen oinarrizko eskubideak mugatuta baitaude. Generoen arteko desparekotasunaren indizea 0,443 da; beraz, Honduras 78 postuan dago, 2016ko Mundu Sailkapenean sailkatu ziren 144 herrialdeen artean.

2013an feminizidio-delitua sartu zen Zigor Kodean, 30 eta 40 urte bitarteko espetxe-zigorak ezarrita. Zigor Kodean sartu eta gero, kondena bakarra agindu da, nahiz eta Honduras bigarrena izan **emakumeentzat arriskutsuenak diren munduko herrialdeen artean**, Indarkeriaren Behatoki Nazionalako zifren arabera (8,6ko tasa dago 100.000 biztanleko; 2017an, 389 feminizidio gertatu ziren). Zigor Kode Prozesalean ezarrita dauden prozedurek bide ematen dute emakumeen aurkako indarkeria-egintza asko zigorrik gabe geratzeko, adiskidetze-prozedurak aplikatzen direlako. Horrez gain, askatasunez gabetzen ez diren beste neurri batzuk erabiltzen dira, prebentzio-espetxealdiaren orde; eta horrek etengabeko arriskua eragiten die emakumeei.

Lanpostuen % 95 prekarioak dira; eta soldatapekoen % 75ek gutxieneko soldata baino soldata txikiagoa jasotzen dute. Hondurasko bi milioi pertsona inguruk ekonomia-sektore informalean jarduten dute, baita adinez txikikoek ere. Duintasunez bizi ahal izateko enplegurik ez dagoenez, gora doaz krimen antolatutako kideak.

Human Rights Watch erakundeak egin zuen 2018ko Mundu Txostenean berriro adierazi zuten **Honduraskoa dela homizidioen munduko tasarik handienetako bat**. Azken urteotan behera egin badu ere, tasa 43,6 da. Tasa horrek esan nahi du 11 orduz behin biktima bat dagoela; Osasunaren Mundu Erakundeak epidemiatzat hartzeko ezartzen duen muga baino bost aldiz handiagoa da, hain zuzen ere.

Herritarren **segurtasunik ezak, pobrezia eta indarkeria orokortuak** eragin handia izaten dute gizartearen, ekonomiaren eta politikaren arloetan. Faktore horiek sistematikoki eragiten diete giza eskubideen defendatzaileei, kazetariari, komunikatzaileei, gazteei, emakumei, LGTTBI pertsonari, abokatuei eta justizia-operadorei (fiskalei, abokatuei, polizia-kideei), garraiolariari, nekazariari, ikasle mugimenduari eta herri indigenei.

Egoera horretan, Estatuak mailaka handitu du herrialdearen **militarizazio**rako aurrekontu-partida: 2017an, herrialdeko aurrekontuaren % 13,6 ingurukoa izan zen, osasunaren eta hezkuntzaren kalterako. Horrek guztiak Giza Garapenaren Indizea txikiagotu du (0,625 da, zehatz-mehatz). 2017an Haiti zen kontinente osoan indize horretatik beherako bat zeukan bakarra⁴.

Azkenik, OACNUDHk ondo irizten dio **SIMOREH** sistemari. SIMOREH giza eskubidei buruzko gomendioak Hondurasen betetzen diren egiaztatzeko sistema da, eta Giza Eskubideen Idazkaritzak koordinatzen du. Nazio Batuen Erakundeak eta Amerikako Estatuaren Erakundeak ematen dituzten gomendioen jarraipena tresna horren bidez egiten da, informazioa eguneratuta egon dadin, eta

³ 2013ko errolda, Encuesta Permanente de Hogares de Propósitos Múltiples [Askotariko xedeetarako etxebizitzaren gaineko inkesta iraunkorra]

⁴ PNUD. Giza Garapenaren gaineko txostena, 2016.

gomendioak betetzea eta ezartzea sustatzeko. OACNUDHk adierazi du Hondurasko Estua «arduratsu» jokatzeko ari dela, aldizkako txostenak prestatzeko dagokionez.

Geopolitika

Honduras sartuta dago **Amerikako Estatu Batuen geopolitikaren eragin-esparruan**. 80ko hamarkadan Estatu Batuek eskualdea kontrolatzeko base militar gisa erabili zuten Honduras, Erdialdeko Amerikako gizarte-prozesuen garaian. Horiek horrela, Amerikako Estatu Batuek ezarritako Segurtasun Nazionalaren Doktrinaren babespean, heriotza-eskuadroiek larri urratu zituzten giza eskubideak. Etapa horretan 184 pertsona arrazoi politikoengatik desagerrarazi zituzten, COFADEHren erregistroen arabera.

Horren ondorioa izan zen Hondurasko Estua Amerikako Estatu Batuen interesen mende geratzea, eta horrek berekin ekarri zituen **erakundeen ahultasuna, gizartearen eta politikaren egonkortasunik eza** (estatu-kolpeak aldizka gertatu dira) eta **herrialdearen produkzioa murriztea**, produkzio-ahalmena atzerritar kontrolaren mende baitago.

Gizarte-mugimenduek eta -erakundeek salatu dute eredu neoliberalaren areagotzea eta Amerikako Estatu Batuek Hondurasko gaur egungo gobernu, hedabide handiak eta botere ekonomikoa babestea. Babes horrek, iturri horien arabera, botere ekonomikoa bera mantentzen du, nahiz eta **ustelkeria** eta **narkoen jarduna** nabarmena izan. 2018. urtearen amaieran, Juan Antonio Hernández Alvarado atxilotu zuten. Errepublikako Juan Orlando Hernández presidentearen anaia da. Juan Antonio Hernández Alvaradori narkotrafiko-delitu leporatu zioten, beste delitu larri batzuen artean.

Estatu-kolpeak eta hauteskunde-prozesu zalantzarriak

2009ko ekainaren 28an, militarrek José Manuel Zelaya presidentea kendu zuten kargutik, eta Roberto Micheletti izendatu zuten bere ordean. Roberto Micheletti ere liberala zen. Setio-egoera dekretu bidez deklaratu zen, eta herritarren bermeak eten egin ziren. Nazioarteko komunitateak estatu-kolpea kondenatu zuen. **Estatu-kolpeak** hasiera eman zion sistema demokratikoaren eta Zuzenbideko Estatuaren krisi-prozesuari. Amerikako Estatuaren Erakundearen Kontseilu Iraunkorrek Zelaya-ri eskaini zion laguntza, demokraziaren jarraipenaren aldeko apustua eginda. Honduras erakundetik kanporatu zuten, 2011 arte, urte horretan berriro onartu baitzuten. Nazioarteko presioa eta egoera politikoaren egonkortasunik eza direla eta, Alderdi Nazionalako Porfirio Lobo hautagaiak hauteskundeak irabazi zituen. 2013an, hauteskundeak egin ziren berriro, eta Juan Orlando Hernández, bera ere Alderdi Nazionalakoa, Errepublikako presidente izendatu zuten.

Alderdi Nazionalak Gorte Goreneko Konstituzio Salako magistratu berriak izendatu zituen. Magistratu berriok 2015ean eten zuten presidentzia-agintaldiak murrizten zituen klausula; hortaz, Hernández presidentearen bigarren agintaldia onartu zuten. 2017ko uztailean, Nazio Batuen Erakunde Giza Eskubideen Batzordeak kezka adierazi eta deia egin zuen Konstituzioan ezarritako hautagarritasun-irizpideak errespetatu zitezen, eta, bereziki, agintaldiaren amaiera-muga errespetatu zedin⁵.

Hauteskunde-egunean, Hauteskunde Auzitegi Gorenak zuzenean eman zuen botoen zenbaketa. Eraitzen arabera, diktaduraren aurkako hautagaia, hau da, Salvador Nasralla, irabazle ari zen. Gaur, Hauteskunde Auzitegi Gorenak iragarri zuen sistema tekniko eroria zela. Sistema berriro abiatu ondoren, Juan Orlando Hernández mailaka egiten ari zen gora. Zortzi egun geroago, Hauteskunde Auzitegi Gorenak jakinarazi zuen Juan Orlando Hernández presidente hautetsia zela, 2018-2022 aldirako.

Amerikako Estatuaren Erakundeak eta Europar Batasunak egoeraren jarraipena egin zuten, eta «akats larriak» behatu zituztela adierazi zuten. Zortzi eguneko itxaronaldiak **iruzur-susmoa** eragin zuen. Azaroaren 29tik aurrera, inoiz ez bezalako gizarte-mugimendu handiak gertatu ziren, eta Polizia Nazionalak eta Indar Armatuak ordena publikoa mantentzeko lana egin zuten. Egoerari aurre egiteko, 2017ko abenduaren 1ean, Hondurasko Gobernuak **salbuespen-egoera** deklaratu zuen, eta konstituzio-

⁵ CCPR/C/ESP/CO/2, 44. eta 45. paragrafoak.

bermeak dekretuz eten zituen, hamar eguneko aldian. Arrazoi gisa adierazi zuen indarkeria-egintzak eta harrapaketak gertatuak zirela.

Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen Goi-komisarioaren Hondurasko Bulegoak adierazi du hauteskunde-egunetik, hau da, azaroaren 26tik urtarrilaren 27a arte, hots, presidentek kargua bere gain hartu zuen arte, Hondurasko Estatuak **larri urratu zituela giza eskubideak**, hauteskundeen ondoko protestetan. Amnistia Internazionalak salaketa bera egin du⁶. Batak eta besteak uste dute segurtasun-indarrek, eta, bereziki, Ordena Publikoko Polizia Militarrak eta Armadak **indar handiegia erabili zutela protestak kontrolatzeko eta barreiatzeko**. Izan ere, indar hilgarria ere erabili zuten, eta, gutxienez 23 pertsonaren heriotza eragin zuten (16 pertsona tiroz hil zituzten); 60 pertsona zauritu zituzten (erdiak su-armen ondoriozko zauriak zituzten); giza eskubideen defendatzaileen, gizarte-liderren eta kazetarien aurkako 50 hertsatze-kasu gertatu ziren. Horrez gain, herritar ugari atxilotu zituzten: gutxienez, 1.351 pertsona atxilotu zituzten abenduaren 1etik 5era bitartean, etxeratze-agindua ez betetzeagatik. Hondurasen desagerrarazi dituzten Atxilotuen Senideen Batzordeak 37 erailketa dokumentatu ditu; pertsona horiek hauteskundeen ondoren hil zituzten.

Gaur egun, 22 pertsona atxilotuta daude, eta aktibista batzuk erbestera joan dira, haiek harrapatzeko agindua eman dutelako. Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen Goi-komisarioaren Bulegoaren informazioaren arabera, urtarrilaren 27an oraindik ez zegoen segurtasun-indarreko kideren baten aurkako kargurik, indarkeriazko heriotzak eta lesioak gertatu arren.

Giza eskubideen batzordeek eta Hondurasko herri- eta gizarte- gizarte-mugimenduek **diktadura** esaten diote Juan Orlando Hernández erregimenari, hauteskunde-iruzurrarengatik, ustelkeriarengatik eta herrialdean bizi den militarizazio-prozesuarengatik.

Militarren eragina herrialdean

2009ko estatu-kolpetik aurrera, **Armada** boterea eta **herritarren segurtasun-lanak** bereganatzen joan da; lan horiek lehenago poliziak betetzen zituen. Erakunde hori 35 urtean (1963tik 1998ra) Indar Armaturen barne egon zen, praktika eta metodo militarren mende.

2011n, Porfirio Loboren Gobernuak Konstituzioa eraldatu zuen, eta Armadari agindu zion honako arlo hauetan laguntza emateko funtzioa: alfabetatze- eta hezkuntza-lanetan, nekazaritza-arloan, ingurumena babesteko lanetan, bideragarritasun-arloko lanetan, komunikazioetan, osasun-arloan eta nekazaritzaren eraldaketan (274. artikulua). Giza Eskubideen Batzorde Interamerikarrak adierazi zuen erabaki hori kezagarria zela.

2012an, Juan Orlando Hernández Kongresu Nazionalako presidente zenean, Defentsa Kontseilu Nazionalaren Lege Organikoa onartu zen, segurtasunaren, defentsa nazionalaren eta inteligentziaren arloetako politikak diseinatze, zuzentze eta gainbegiratzeko. Honako hauek dira organo hori osatzen duten kideak: Errepublikako presidentea, Kongresu Nazionalako presidentea, Justizia Gorte Goreneko presidentea, Fiskal Nagusia, Segurtasuneko idazkaria eta Defentsako idazkaria. Adituek botereen zentralizazioa salatzen dute: Errepublikako presidentek inteligentzia zuzentzen du, eta administrazio publikoaren, administrazio judizialaren eta zigor-administrazioaren arloetako legeak koordinatzen ditu. Gainera, Defentsaren eta Segurtasunaren Kontseilu Nazionalak bere gain hartu du Segurtasun eta Defentsa Nazionalari buruzko Dokumentu Publikoen Sailkapenerako Legea aplikatzeko ardura; beraz, dokumentu erreserbatuen, isilpeko dokumentuen eta dokumentu ultrasekretuen sailkapenari buruzko guztia militarrek soilik kudeatzen dute.

Aldi berean, **polizia-indarren militarizazioa** bultzatu da. 2013ko ekainean, Inteligentzia Tropa eta Segurtasunaren Erantzun Bereziko Taldeak (TIGRES, jatorrizko izenaren arabera) osatu ziren. Kideek etika, diziplina eta hierarkia militarra bete behar dituzte, eta Segurtasun Idazkaritzaren mende daude. Segurtasun Idazkaritza Indar Armaturen kuarteletan dago. 2014ko urtarrilean, Juan Orlando Hernándezek Ordena Publikoko Polizia Militarra eratu zuen. Indar berezia da, eta Indar Armatuetakoa kideek osatzen dute, segurtasun publikoa mantentzeko funtzioa beren gain hartuta. Harrezkero,

⁶ Amnistia Internazionala (2018).

militarrek polizia-lana egiten dute. Urte bereko otsailean, Defentsaren eta Segurtasunaren Kontseilu Nazionalak Erakundearteko Segurtasunaren Indar Nazionala sortu zuen (FUSINA, jatorrizko izenaren arabera). Indar horrek herrialdearen segurtasun- eta justizia-organoen jarduna gainbegiratzen du egunero. FUSINA eratu eta berehala, indar horrek «Morazán Operazioa» martxan jarri zuen. Segurtasunaren Erantzun Bereziko Taldeek eta Ordena Publikoko Polizia Militarrek batera jarduten dute horretan, segurtasun publikoa defendatzeko; horrela, segurtasun nazionalaren eta herritar segurtasunaren arteko hibridoa sortu dute.

Erabaki horiek hainbat lege-erreformaren bidez babestu dituzte, baina gizarte-erakunde eta -mugimendu askok, OACNUDHrekin batera, salatu egiten dituzte. Era berean, Errepublikako Kongresuko Justiziaren eta Giza Eskubideen Batzordeko kideek ere EAEko ordezkariari adierazi diete egoera horrek herritarren giza eskubideen urraketak bultzatzen dituela. Nazioarteko erakundeek adierazi dute Armadak parte hartu duela herrialdean eragina izaten duten erabakietan, besteak beste, GKEen jarduerari lotutako erabakietan. Gainera, oso kezkatuta daude segurtasun-enpresa pribatuko efektiboak nabarmen handitu direlako.



Euskal Ordezkaritza Honduraseko Giza Eskubideen Erakundeekin eta Gizarte mugimenduekin bilduta, Tegucigalpa.

Gizarte-erakundeek eta -mugimenduek, Giza Eskubideen Komisario Nazionalak, nazioarteko erakundeek eta Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen Goi-komisarioaren Bulegoak salatu dute Estatuaren Segurtasun Indar eta Kidegoen **indarkeriaren gehiegizko erabilera**, eta hainbat dei egin diote Hondurasko Gobernuari. Gaur egun, 52 polizia-agenteren gaineko ikerketa dago, giza hilketa leporatzen zaielako; eta 39 polizia-kideri tortura leporatzen zaie, baina, Human Rights Watch-ek salatu duen bezala, ez zaie kondenarik ezarri. Gainera, erakunde feministek, Indarkeriaren Behatokiak datuetan oinarrituta, jakinarazi dute militarren eta polizien emakumeen aurkako indarkeria gora egiten ari dela. Bereziki, herrialdeko mendebaldean egin du gora, hainbat kasu salatu direlako.

Karabana migratzaileak

Milaka hondurastarrek erbesteratu behar izan dute, beren bizitza salbatzeko itxaropenaz. Hona hemen erabaki hori bultzatzen duten gertaerak: pobrezia orokortua; emakumeak hiltzeko indarkeria; LGTBI herritarren aurkako indarkeria; giza eskubideen, gizarte-sektoreen eta herritarren sektoreen aurkako indarkeria eta erauzketa-industrien eraginaren ondoriozko lur-utzarazteak. Pertsona horiek banaka edo taldeka irteten dira egunero Hondurastik, Amerikako Estatu Batuetara joateko asmoz. «Karabana

migratzaileak» deitzen zaie. Otsailaren 16an, San Pedro Sula hiritik atera zen karabanak mezu hau zeraman: «Babes bila goaz, Hondurasen hilko gara eta».

Migrazio-bide horietan indarkeria nagusi da. Emakumeek, gainera, sexu-erasoak ere izaten dituzte. Migratzaile eta iheslari asko bidean desagerrarazten dituzte; eta beste asko hartu eta deportatzen dituzte, beraz, ihes egin aurretik izaten zuten egoera berera itzuli behar dute berriro.

Haietako batzuk Espainiako Estatura ihes egiteko asmoz ateratzen dira. 2018an, 2.410 hondurastarrek asilo eskatu zuten Espainiako Estatuan. Haietako 47k Euskadin eskatu zuten (21 emakumek eta 26 gizonek)⁷. Urte horretan ebatzi ziren eskaeren artean, 10 pertsonari baino ez zitzairen aitortu iheslariak zirela, eta 150 pertsonari eskaera ukatu zitzairen. Gaur egun, Hondurasko pertsonen 3.690 asilo-eskaera ebazteke daude⁸.

EAE n egin diren eskabide guztietatik, CEAR-Euskadi-k 974 eskaerari lagundu zien (% 61): 478 eskaera emakumeenak ziren; eta 496, gizonenak. Herritartasunen arabera, Venezuela berriro da CEAR-Euskadik lagundu dien eskaeren jatorri ohikoena (% 34); ondoren, Kolonbia dator (% 8), eta bi horien artean, Honduras (% 4,7).

Hondurasko pertsona horien atzerriko «lan-indarra» Hondurasko ekonomiaren diru-sarreraren iturri nagusia bihurtu da (guztira 8.000.000 biztanle izanik, 1.000.000 biztanletik gora herrialdetik joan direla zenbatetsi da).

Migrazioak eta erbesteratzeak, gainera, eragin handia izaten dute antolaketa- eta komunitate-prozesuetan; behintzat horixe jakinarazi da gizarte-mugimenduetako eta herritarren mugimenduetako ordezkariekin izandako bileretan.

⁷ CEAR-Euskadi (2019).

⁸ CEAR (2019).

GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEEN EGOERA

Nazio Batuen Erakundearen eta Giza Eskubideen Batzorde Interamerikarraren ustez⁹, Honduras **munduko herrialde arriskutsuenetako bat** da **giza eskubideak** defendatzen dituztenentzat; Global Witness erakundearen arabera¹⁰, herrialde arriskutsuena da, lurra, lurraldea eta ingurumena defendatzen dituztenentzat. Horrez gain, Giza Eskubideen Batzorde Interamerikarraren babesneurriak ezarrita dituzten pertsonen hilketa-tasarik handiena Honduraskoa da (14 pertsona hil zituzten, 2014tik 2016a arte¹¹).

Michael Forst-ek, Nazio Batuen Erakundeko errelatore bereziak, hauxe adierazi zuen, 2019ko apiriletik maiatzera bitarteko bisitaldiaren ondoren: «zigorgabetasunik eza, parte-hartze aktiborik eza eta interes boteretsuen kolusioa osagai hilgarriak dira, eta Honduras herrialde arriskutsua bihurtu dute giza eskubideen defendatzaileentzat».

2009ko estatu-kolpetik aurrera sortu zen erresistentzia eta artikulazioa indarkeriaz ezabatu dituzte. Gizarte zibileko sektoreen **batasuna desegin** da, herriko sektoreen eta giza eskubideen defendatzaileen aurkako **errepresio**-ekintzak direla eta.

Giza eskubideen erakunde eta gizarte-mugimendu askok adierazi digute ahituta sentitzen direla, azken 10 urteotako errepresio-ekintzak eta giza urraketak direla-eta. 2017ko bisitaldian, presidentziarako hauteskundeak egiteko zirenean, EAEko ordezkariak itxaropen argia hauteman zuten; oraingo bisitaldian, ordea, **frustrazioa eta beldurra** antzeman dizkiete, eta erakunde batzuek berretsi egin dute.

Hala eta guztiz ere, oraindik ere herrialdea eraldatzeko eta egoera horren aurretiko demokrazia (nahiz eta «kalitate txikikoa» izan) berriz ezartzeko **itxaropena** dute. Halaber, erakunde guztiak egiten dute **gizartea indartzeko eta artikulatzeko deia**. Horixe da erronka nagusietako bat, hain zuzen ere. Ikuspegi guztiak kontuan hartu eta elkarrizketa ezarri behar da, eraldatze demokratikoa eraikitze eta gizartean giza eskubide unibertsalak betetzen direla bermatzeko.

Aurreikuspenen arabera eta jada sortzen ari diren gatazkak ikusita, 2019a urte zaila izango da gizarte-mugimenduentzat: indarkeriaren ondorioz lekualdatu eta erbestera joan beharrarengatik eta nazioarteko erakundearen aurkako kanpainen igoerarengatik. Lankidetzaren Lege berria salatzen dute. Lege horrek giza eskubideen defendatzaileei ukatuko die nazioarteko lankidetzarako funtsak eskuratu ahal izatea. Gainera, haiek adierazi dute lege horrek bi alde dituela: bata, solidarioa da; eta besteak herrialdearen gaur egungo egoera babesten du.

Arriskuak eta jazarpen-moduak

Erakunde eta mugimendu sozialek eta popularrek salatu dute **hiltzeko** eta **estigmatizazio- eta kriminalizazio-kanpainen biktimak** izateko arriskuan daudela, haiek Estatuaren interes ekonomiko eta politiken aurka daudelako. Kriminalizazio-kanpainen giza eskubideen defendatzaileak aurkari edo delitugile gisa irudikatu nahi dituzte, herrialdearen «garapen»aren aurkakoak izango balira bezala. Honako hauek dira kanpaina horien helburuak: pertsona horiek egiten duten lana legez kanpokotzat jotzea; haien prozesuei laguntzen dien sare soziala haustea; eta herritarren axolagabetasuna bultzatzea, defendatzaileei erasotzeko ekintzen aurrean. Giza Eskubideen aldeko Hondurasko Sare Nazionalak jakinarazi du 1.237 eraso gertatu zirela 2017an. Gainera, sareko kideek salatu dute giza eskubideen defendatzaileak eta oposizio-alderdietako kideak funtzio publikotik baztertzen ari direla (adibidez, irakaskuntzatik).

Hainbat topagunetan adierazi da hondurastar indarkeria horren eragile nagusiak gobernua eta botere politikoko eta ekonomikoko sektoreak direla. Horrez gain, salatu dute stigmatizazio-kasu batzuk **epaitegietara eramaten ari direla**. Zigor Kodea hainbat aldiz aldatu eta gero, zigor mota berriak ezarri dira, eta herritarren protestak edo giza eskubideen defentsa delitutzat hartzen dira gaur egun. Gainera,

⁹ CIDH (Giza Eskubideen Batzorde Interamerikarra) eta Nazio Batuen Erakundea (2016).

¹⁰ Global Witness (2017).

¹¹ CIPRODEH (2016).

duela sei hilabete bozkatu zen erreforma baten gaineko kezka jakinarazi dute, gaur egun «*vacatio legis*» aplikatzen ari baita, OACNUDHk adierazitakoaren arabera.

Egoera horretan, eragile guztiek aipatu dute **zigorgabetasuna** oso handia dela giza eskubideen defendatzaileen aurkako erasoetan, hau da, defendatzaileen giza eskubideak zapaldu eta urratzen dituztenean. Nazio Batuen Erakundeak nabarmendu du zigorgabetasunaren kausa nagusietako bat justizia-operadoreen aurkako eraso dela¹²: eraso horrek «disuasio-eragina izaten du (...), justizia-operadoreak errepresalien beldur direlako». Gizarte-mugimenduek eta -erakundeek aipatu dute 150 erailketa egin direla azken urteotan. Gainera, nazioarteko erakundeek azpimarratu dute Fiskaltzan ez dutela ikerketak egiteko protokolo zehatzik; eta ikertu gabe dauden giza eskubideen defendatzaileen erailketa batzuk 90eko hamarkadakoak direla. OACNUDHk berretsi du erailketa horiek ez direla ikertzen. Kasu horietako zigor-jardunik eza are nabarmenagoa da, kontuan hartzen bada oso bizkor jarduten dutela demandatuak giza eskubideen defendatzaileak direnean. Gainera, ez dakite zertarako erabiltzen diren Europar Batasunak (Eurojustizia-k) Hondurasko Justizia Sistemari bidaltzen dizkion fondoak. Fiskaltzak ere ez du erantzun galdera hori; bestalde, jakinarazi digu giza eskubideen zapalketei buruzko demanda ugari jasotzen dituztela eta baliabide gutxi dutela beren lana egiteko.

Hauteskundeen ondoko prozesuan, OACNUDHk nabarmendu du Ministerio Publikoaren jardunik eza; beraz, hori eta zigorgabetasun orokortua kontuan hartuta, «oso larri»tzat jo du egoera.

Giza eskubideen defentsako sektoreak

EAEko ordezkariak bilerak izan dituzte hainbat eragilerekin, eta haiek adierazi dute honako hauek direla arrisku handieneko sektoreak: lurraldearen eta ondasun erkideen defendatzaileak, adierazpen-askatasunaren defendatzaileak eta emakumeen eta askotariko sexualitate moten eskubideen defendatzaileak.

Giza eskubideen defentsa kolektiborako estrategiatzat hartuta, COFADEHK eta antzekoak diren beste erakunde batzuek sei lurralde-sare antolatu dituzte, defendatzaileek osatuta. Horrez gain, sareko kideak giza eskubideen defentsari lotutako arloetan trebatu dituzte, herrialdeko sailetan jardun dezaten.

Lurra, lurraldea eta ondasun erkideak

Txosten honen sarreran jaso den bezala, Honduras hartzen da munduko herrialderik arriskutsuentzat, behintzat, ingurumena, lurraldea eta guztion ondasunak (lurra, ura, ibaiak eta basoak) defendatzen dituzten pertsonentzat.



Euskal Ordezkaritza, Nuevo Amanecer nekazal elkartearekin (Tegucigalpa)

Gainera, landa-komunitateen **pobrezia-prozesua** salatu dute, bizitza defendatzeko oztopo handia izategatik. Horri gehitzen zaizkio Gobernuak legez eskatzen dituen nortasun juridikoari buruzko eskakizunak. Horrek deuseztatzen du funts-deialdietara aurkezteko aukera.

Halaber, azaldutakoaren arabera, ez daukate lehen mailako osasun-sistematik, eta horrek eragina izaten du haien gorputzetan. Izan

¹² Nazio Batuen Erakundea (2015a). 48., 49., 50. eta 51. paragrafoak.

ere, min fisikoak eta ondoeza izaten dituzte, nekearen, estresaren eta etengabeko jazarpenak eta mehatxuek eragindako egoera beldurgarriaren ondorioz.

Esan bezala, 2009ko estatu-kolpetik, nabarmen ugaritu dira **erauzketa-enpresei egindako lagapenak**. Enpresa horietako asko politikarien, Kongresuko kideen eta funtzionario publikoen mende daude. Laga diren lurretako batzuk aspalditik ziren komunitate indigenenak, eta lagapena egin da, nahiz eta nazioarteko araudian ezarrita egon aurrez kontsulta libre eta informatua egin behar dela (LANEren 169. Hitzarmena). Salatu egiten da **errepresioak, kriminalizazioak eta jazarpenak** gora egin dutela, eta **gero eta pertsona eta komunitate gehiago beren lurra uztera behartzen ari direla**, enpresa-interesen aurkaritzat jotzen dituztelako. Gainera, OACNUDHk adierazi duen bezala, ingurumen-gatazkei Estatuak ematen dien erantzuna «gutziz neurrigabea da». Lekukotza baten bidez, EAEko ordezkariok jakin dugu nekazari bat torturatu zutela, meatzaritzako enpresa baten eraginetik bere lurraldea babesten saiatzeagatik. Gainera, haiek adierazi dute zerga-errekerimenduak erabiltzen ari direla, Estatuaren jardun bortitza legitimatzeko; hortaz, defendatzaileek eskatu egiten dute giza eskubideen nazioarteko arauak jarduketa horietan bete daitezen.

Egin genuen aurreko bisitaldian bezala, Garapen Ekonomikoko Zona Bereziak (ZEDES, jatorrizko izenaren arabera) edo Hiri Eredugarriek kezka sortzen dute. Izan ere, Hondurasko Gobernuak ez du jurisdikziorik izango haien gainean. Inplementatzeko dago, baina asmoa da enpresa transnasionalei lurra bereganatzeko baimena ematea, subiranotasun nazionala alde batera utzita.

Adierazpen-askatasuna eta informazioa eskuratzeko askatasuna

Jakinarazi digutenaren arabera, 2001etik hona, 77 kazetari erail dituzte, eta kasuen % 90ek zigorrik gabe jarraitzen dute. Ordezkariok jaso dugu hainbat kazetari eta esatariren lekukotza. Poliziaren eta Armadaren mehatxuak eta erasoak jaso dituzte, eta, haien azalpenen arabera, eraso horiek egiten dira komunikazioa eta informazioa ematea oztopatzeko estrategia baten esparruan. Errepublikako Kongresuko Justiziaren eta Giza Eskubideen Batzordeak ere onartzen du adierazpen-askatasuna era horretan mugatzen dela. Gaur egun, ezin da eskatu honako arlo hauei buruzko daturik: meatzaritzako lagatzei buruzkoak, ingurumen-txostenei buruzkoak edo genero-indarkeriaren biktimak izan diren emakumeen kopurua, departamentuen arabera zehaztuta.

Emakumeen giza eskubideak

Giza eskubideen emakume defendatzaileek politikaren, ingurumenaren, gizartearen eta lurraldearen arloetan jarduten dute, **indarkeriarik gabe eta duintasunez bizitzeko eskaera aldarrikatzen**. Eskaera horrek berekin dakar ura, lurra, elikagaiak, etxebizitza, mugikortasuna, hezkuntza, osasuna eta segurtasuna emakumei eta haien komunitatei bermatzea.

Emakumeek salatu dute beren bizitzaren eta haien familien bizitzaren aurkako mehatxuak, jazarpenak, kriminalizazioa eta jagoletza etengabe egiten dituztela tokiko eragileek, erauzketa-enpresetako ordezkariak, Estatuko ordezkariak, Elizako ordezkariak eta indar-segurtasun estatalek eta paraestatalek. Sistema kapitalistaren, kolonialistaren eta heteropatriarkalaren esparruan, gainera, beste **indarkeria** mota batzuei ere aurre egin behar diete, hala nola sexu-indarkeriari, indarkeria sinbolikoari, ekonomikoari, fisikoari eta psikologikoari, besteak beste. Haiek jakinarazi digute 2018an 380 emakume erail zituztela, eta bilera egiteko egunean, hots, 2019-01-28an, jada eraildako emakumeen zifra 18 zela. Gainera, salatu egiten dute indarkeria horiek oso kezagarriak direla, erailketak **ankerkeria** handiz egiten direlako. Gainera, segurtasunari zigorraren ikuspegitik soilik heltzea ez da eraginkorra; horrekin batera, prebentzio-politika publikoak eta emakumeen eta gizonen arteko parekotasuna benetan sustatzeko politikak ere egin behar dira, feminizidioak eta emakumeen aurkako egiturazko indarkeria amaituko badira. Halaber, kasu horietan ezohiko **berandutze judiziala** dago: 2018ko urtarriletik abuztura bitartean 125 emakume indarkeriaz hil dituzte, eta 21 kondena baino ez dira eman. Hondurasko Gobernuak fondoak esleitu zizkion Feminizidioen Batzordeari, baina oraindik ez dituzte erabili.

Halaber, adierazi digute kezkatzen dituela adingabeen haurdunaldien kopuruak (2018an, 13.840 neska erditu ziren). Bestalde, etxeko langileen baldintzen ondorioz, lan horri esklabutza modernoa esaten diote (% 60tik gora kontratu gabe ari dira lanean, eta % 26 adingabeak dira).

Salatu egin dute narkotrafikoa eta ustelkeria erakundeetan sartu izana. Halaber, emakumeen sexu- eskubideei eta ugalketa-eskubideei lotutako beste arazo larri batzuen artean, honako hauek aipatu dituzte: **haurdunaldia etetea zigortuta egotea**¹³, haurdun ez geratzeko larrialdiko pilulak dekretu exekutiboaz debekatzea eta CEDAW Hitzarmeneko aukerazko protokoloa ez berrestea. Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen Goi-komisarioaren Bulegoak adierazi duen bezala, emakumeen aurkako jarrerak oso zurrunik eta kondenatzaileak dira.

Azkenik, haiek nabarmendu dute gizarte-egituran lortzeko dagoen erronka handienetako bat **emakumei dagozkien eskubideak** onartzea dela. Haiek aldarrikatu dute nekez izango dutela demokrazia kalean, baldin eta etxeetan emakumei erasotzen badiete, eta botere-agintari batzuek ere demokrazia jokutzen ez badute, ez beren familian, ezta erakundeetan ere. Erauzketa-enpresak lehian ari dira lurraldea bereganatzeko, baina, horrez gain, emakumeen lurralde-gorputzak bereganatzeko lehia dute, eta horrek berekin ekartzen du emakumei erasotzea.

Sexu- eta genero-aniztasuna

Sexu- eta genero-aukera anitzen eskubideak defendatzen dituzten pertsonen lan hori egiteagatik jasaten dute jazarpena, baina, horrez gain, lesbianek, homosexualek eta transexualek erasoak jasaten dituzte beren sexu-aukerarengatik. 2009ko estatu-kolpetik 303 erailketa egin dira, zigorrak ezarri gabe.

Hitzaldi fundamentalistak eta gorrotoz beteriko jarrerak salatzen dituzte, hitzaldi horiek pertsona horien aurkako erasoak bultzatzen dituztelako. Halaber, salatu egiten dute alderdi politikoen eta fundamentalismoen arteko aliantza ere bai. Estatu laiko baten aldeko borroka egiten dute, eta aurkeztu duten errekurtsio baten berri eman digute. Ezkontza parekidea defendatzen dute, baina errekurtsioa ebazteko dago.

Indarkeria horiek LGTTBI pertsona asko behartu dute herrialdetik ihes egitera, beren burua babesteko. Haietako asko karabana migratzaileen bidez irteten dira, edo asiloa eskatzen diote Espainiako Estatuari.

Kasu espezifikoak

Hondurasen desagerrarazi dituzten Atxilotuen Senideen Batzordea (COFADEH).

COFADEHk krisi etengabetzat jo du Hondurasko egoera, 2009ko estatu-kolpetik. Haiek uste dute gaur egungo gobernuak «legez kanpokoa eta legez kontrakoa» dela. Gainera, kideek salatu egiten dituzte herrialdearen militarizazioa, botere-gehiegikeriak eta indarraren gehiegizko erabilera. Haien ustez, ez dago konstituzionaltasunik, ezta Zuzenbideko Estaturik ere. Haiek badakite erronka ikaragarri handia dela, eta oso zaila dela kalterik ez jasotzea. Egoera horretan, gizarte-mugimendua zabaltzearen, indartzearen eta egituratzearen aldeko apustua egiten da, baina erbesteratzeko joera handia dago, eta horrek eragina izaten du oinarritzko erakundeetan. Azpimarratu egin dute nazioarteko laguntzaren garrantzia («Ez da gauza bera haiek gu bakarrik ikustea ala nazioarteko laguntzaz babestuta gaudela ikustea»). Gainera, giza eskubideen defendatzaileak babesteko eta lekualdatzeko programei eta ekimenei ondo irizten diete. Horren harira, alerta eman dute funtsen igoera nazioarteko lankidetzabaliabideen kalterako izan ez dadin, baliabide horiek ezinbestekoak baitira biktimei laguntzeko.

80ko hamarkadako biktimen alde jarduten duen erakunde bakarra da herrialde osoan. Biktimei laguntzen diete egia aitortzeko, erreparazioa emateko eta berriro ez gertatzeko bermeak eskatzeko demanda judizialean. Zigorgabetasunaren aurka borrokatzen dira, desagerrarazi dituzten pertsonen kasuak iker daitezen. Haiek ohartarazi dute garai hartako hiltzaileak, gizateriaren aurkako delitugileak ere izanda, gaur egun, Gobernuari segurtasunaren arloko aholkuak emateko erakundeetan daudela,

¹³Hondurasen abortu-kasu guztiak debekatuta daude, eta 3 eta 10 urteko espetxe-zigorak ezartzen dira.

heriotza-eskuadroiak antolatzen dituztela, eta krimen antolatua ere kontrolatzen dutela. Gainera, salatu egiten dute, zoritxarrez, gaur egun ere gertatzen direla pertsonak desagerrarazteko kasuak.

Estatu-kolpetik aurrera bereziki garrantzitsua da preso politikoei eta jazarpenera jasaten duten pertsonen laguntza juridikoa ematea, batez ere, delitu arruntengatik egiten diren epai-prozesuetan, zeinetan ez baitago amnistia-aukerarik. Kontuan hartu behar da herrialdean defendatzaile publiko bat 100.000 biztanleko dutela, eta pobrezia-erata % 68 dela. Gaur egun, 161 prozesu irekitan ematen da laguntza.

«Badakigu nolakoa den arriskua, baina bizirik gaude, eta kemen handia dugu».

La Paz departamentuko indigenen eta nekazarien komunitateak

La Paz departamentua Hondurasko hego-mendebaldean dago. Biztanle indigena lenken kopuru handiena duten departamentuen sailkapenean hirugarren postuan dago. Biztanle lenken % 20 analfabetoak dira (% 64, emakumeak; eta % 36, gizonak). Gainera, % 57k baino lenka gehiagok lan-arazoak dituzte (besteak beste, lana duten gehienek gutxieneko soldata baino soldata txikiagoa jasotzen dute).

Alderdi Liberalaren gotorlekuetako bat La Paz izan zen. Hala eta guztiz ere, Alderdi Nazionalak protagonismoa bereganatu zuen, eta 2009ko botere-kolpea eta gero, lehen indar politikoa bihurtu zen.

EAEko ordezkariok departamentua bisitatu dugu, COFADEHko, La Vía Campesina mugimenduko eta Nekazarien Koordinazio Nazionaleko kideekin batera. Bileran parte hartu dutenak ados daude lurraldearen egoerari buruz adierazitakoarekin eta egiten diren eskaerekin; batez ere, **lurraldea eskuratzeko eta jabetzan edukitzeko eskaerarekin** (% 20k baino ez dauzka jabetza-tituluak). Hortaz, borrokaren helburu batzuk, besteak beste, nekazaritzaren erreforma osoa egitea, Konstituzioan jasota uztea eta elikaduraren subiranotasuna errespetatzea dira.

Estatuak meatzaritzako ustiapenei —lur gaineko meatzaritzan aritzeko—, hidroelektrikoei eta baso-industriari egiten dizkien lagapen gehienak indigena lenken lurraldean gauzatzen dira. Megaproiektu horietan guztietan arduradunek bertako **biztanleak behartzen dituzte lurra uztera**, eta ez da betetzen **LANEren 169. hitzarmenean** adierazitako eskubide bat, hau da, lenkek eskubidea dutela beren lurraldeei buruzko erabakietan parte hartzeko, alde aurretik kontsulta eginda, modu librean eta informatuan. Horrez gain, OACNUDHk esaten duen bezala, erauzketa-enpresei egindako lagapenak isilpean kudeatzen dira, 2018ko lege-dekretu batez babestuta.

Jakinarazi digute Alderdi Nazionalen aktibista antolatuek asistentzia-programak antolatu dituztela, eta «Vida Mejor» (Bizitza Hobea) esaten dietela, baina kontseilu indigenetako edo nekazarien taldeetako kideak baztertuta daude programa horietatik. Bazterketa hori zigor gisa ezartzen zaie, erauzketa-proiektuen aurka egoteagatik. Horrez gain, Indar Armatueta erreserbista batzuek kontseilu indigena batzuk mehatxatzen dituzte, eta parte hartzen dute lurra utzarazteko prozesuetan; kontseilu indigenen aldean, patronatu komunalak egiten dituzte, komunitateetako ehun soziala apurtzeko estrategia gisa; eta komunikabideek desinformazio-kanpainak egiten dituzte, erauzketa-enpresen aurka egiten duten pertsonen lanari buruz.

Batik bat, honako hauek dira lenken arriskubide nagusiak: jazarpenera, estigmatizazioa, kriminalizazioa, mehatxuak, atentatuak eta erailketak. Izan ere, 80ko hamarkadan, Nekazarien Koordinazio Nazionala sortu zenean, indarrean zeuden eredu berak dira. **Erasoak gero eta bortitzagoak** dira: suteak; etxebizitzetan harrapaketa egitea; militarren eta polizia indarkeriaren ondoriozko abortu nahigabeak; bertakoak balaz zauritzea, lurretatik irtenarazi dituztenean; eta adingabeak torturatzea eta kriminalizatzea. Jakinarazi digute ez daukatela baliabiderik, indarkeriaren ondoriozko nekazari biktimen inbentarioa egiteko.

Erakunde gehienek ez daukate azpiegitura fisikorik, Nekazarien Koordinazio Nazionala (CNTC) eta La



Paz departamentuko Mugimendu Independente Indigena Lenka (MILPAH) izan ezik. Gainera, zailtasun handiak daude lurra utzarazteko prozesuen mendeko gatazka-eremuetara sartzeko.

Justizia Sistema, gainera, erreminta moduan erabiltzen dute. Zifra zehatzik egon ez arren, 7.000 nekazari inguru dira **judizializazio**-prozesuen biktimak (haietatik 1.700 emakumeak dira). Kautela-neurriak ezarrita dituzten pertsonen egoera bereziki larria da. Astero epaitegietara

joan behar izaten dute. Bidaiak ekartzen duen gastua bereziki larria da pobrezian bizi diren biztanleentzat. Gainera, prozesu horietako batzuek 7 urte irauten dute.

Salatu egiten dute ez dagoela **nekazaritzako erakunderik**, ezta **doako justizia-zerbitzurik** ere. Egunero jasaten dituzte erasoak eta mehatxuak, eta badute Polizia Nazionalan, Ministerio Publikoan eta epaitegietan horiek salatzea, baina oso ezohikoa da handik emaitza onik ateratzea.

Itxaropena dute *Landa-eremuetan jarduten duten nekazarien eta beste langile batzuen eskubideen aldeko Nazio Batuen Erakundearen adierazpenean*, nekazarien eskubideak aitortzeko urrats handia baita. Hauxe da egungo erronka: adierazpen horrek herrialdeko politika publikoetan kontuan hartzea.

Azkenik, pobrezia eta indarkeria orokortuen aurrean, pertsona askok erabakitzen dute herrialdetik irtetea eta Espainiako Estatura edo Amerikako Estatu Batuetara abiatzea, karabana migratzaileetan.

Bileran parte hartu duten erakundeek eta mugimenduek, baita Tegucigalpako erakundeek eta OACNUDHk berak ere, salatu dute **usurpatze**-delitua erabiltzea, nekazariak kriminalizatzeko zigor-figura gisa. Jurisdikzio nazionalaren mende epaitua izatea gaur egun terrorismo- edo narkotrafiko-delituekin parekatzen da, nahiz eta presioa egin administrazio-delitu bat leporatzeko, zigor-delituaren orde.

Errepublikaren Kongresuko Justiziaren eta Giza Eskubideen Batzordeak onartu du delitu hori Zigor Kodean sartzea gatazkatsua izan zela. Usurpatze-indizeen gorakada dela-eta, gizarteko sektoreei galdetu zitzaion. Enpresa pribatu baten babes identifikatu zen, eta hari eman zitzaion lehentasuna.

«9 de Julio» enpresako nekazarien aurkako utzarazte bortitza

2016ko azaroaren 28an, La Paz departamentuko Letren Epaitegiak agindua eman zuen 9 de Julio nekazaritza-enpresako langileen aurkako utzarazte-prozesua egiteko. Zehazki, 2017ko urtarrilaren 6an egin behar zen. Enpresa hori San Pedro de Tutule udalerrian zegoen, eta zazpi urte zeramatzan onibar batean.

Egun hartan ez zuten bete lurra uztera behartzeko agindua, baina berriz programatu zen urtarrilaren 13ko 6:00etan egiteko. Indarkeriaz egin zuten, eta Prebentzio Poliziako 12 patruila, Polizia Militarreko 3 komando eta Fiskaltzako ordezkariak erabili zituzten. Lau pertsona zauritu zituzten, eta nekazarien taldeko 60 familia pobrezia-arriskuan utzi zituzten.

Lurra utzarazteko agindua bete zuten, nahiz eta COFADEHk eskaera egin nekazarien aldeko hiru idazki aurrez ebazteko: egintza erreklamatu eteteko babes-errekurtso bat, Justizia Gorte Goreneko

Konstituzio Salan urtarrilaren 5ean aurkeztua; eta errekurtsori lotutako bi manifestu (bata, Tegucigalpako Justizia Gorte Gorenean urtarrilaren 12an aurkeztua; eta bestea, La Paz departamentuko Letren Epaitegian aurkeztua).

Berta Cáceres eta haren familia

EAEko ordezkariok zenbait konpromiso hartu genituen 2017ko bisitaldian. Ildo horretatik, EAEko ordezkariok berriro bildu ginen Berta Cáceresen familiarekin. Berta Cáceres lider lenka erail zuten, eta epai-prozesuaren eta familiaren egoeraren jarraipena egin nahi genuen.

2018ko azaroan Hondurasko Gorte Goreneko auzitegiak ahoz jakinarazi zuen prozesuaren ebazpena. Hala ere, EAEko ordezkariak hara iritsi ginenean (2019ko urtarrilaren 31n), ebazpen idatzia oraindik ere ez zegoen erabilgarri. Hori bidegabeko berandutza da, eta errekurtsioak jartzea oztopatzen du, behar bezalako epaiketa bat jasotzeko eskubidea era horretan urratuta.



Euskal Ordezkaritza Berta Cáceresen senideekin (Tegucigalpa)

Bestalde, ebazpenean zigor arloko delitua egin izana leporatzen zaie zortzi auziperatuetatik zazpiri, baina oraindik ez da zigorrik zehaztu, bi babes-errekurtsio ebazteko daudelako. Gainera, Berta Cáceres liderraren aurkako konplotaren eta erailketaren **egile intelektualak ez dira ikertu**. Beste prozesu bat hasi da, DESA enpresako David Castillo-ren aurka. Hasita egon arren, Atala familiako kide bat ere, hots, DESA enpresako jabe bat ere, ez dute auziperatu, nahiz eta salatzaile partikularrek auzipetzeko eskaera behin eta berriro egin. Halaber, familia horrek armadarekin eta aginte-katearekin dituen loturak ez dira oraindik ikertu.

Cáceres familiak konfiantza dauka nazioarteko laguntzan, itxaropena, egia, justizia, erreparazioa eta berriz ez gertatzeko bermeak lortzeko. Era berean, prestatzen ari dira «*Berta Cáceres sobre los Derechos Humanos en Honduras*» izeneko legearen proiektuan. Lege horren bitartez lortu nahi da: batetik, Amerikako Estatu Batuek Hondurasi ez ematea segurtasun-arloko laguntzarik, segurtasun-

indarrek Hondurasen giza eskubideak zapaltzeari utzi arte, eta urraketa horien erantzuleak epaitu arte; eta, bestetik, polizia edo herrialdearen militarizazioa finantzatzeko funtsen bidalketa etetea.

GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEEN BABESA

Herrialdean jarduten duten nazioko eta nazioarteko babes-tresnei eta haien eraginkortasunari buruzko informazioa eman ziguten ordezkarioi. Segidan azalduko dugu, dokumentu honetan. Eranskinean jaso dugu nazioko eta nazioarteko instantzien helburuak, funtzioak eta aginduak.

Babeserako sistema nazionala

Ley de Protección para las y los Defensores de Derechos Humanos, Periodistas, Comunicadores Sociales y Operadores de Justicia legearen bidez [Giza eskubideen defendatzaileak, kazetariak, gizarte-komunikatzaileak eta justizia-operadoreak babesteko legearen bidez] sortu zen mekanismo hori. Estatuko erakundeek, gizarte zibileko gremio batzuekin eta gizarte zibilarekin koordinatuta, bultzatzen dituzte giza eskubideak, adierazpen-askatasuna eta jurisdikzio-lanak sustatzeko eta defendatzeko lanean ari diren pertsonak babesteko ekintzak.

EAEko ordezkariok gizarte-erakunde eta mugimendu batzuekin bildu gara, eta haiek adierazi dute legea egiteko prozesuan herritar zibil gisa hartu zuela parte, baina emaitza ez dela haiek sustatzen zutena. Puntu horretan, ezberdintasunak daude gizarte zibileko beste sektore batzuekin.

2017ko bisitaldiaren ondoren adierazi genuen bezala, oro har, ontzat hartzen da legea egin izana, baina kritika batzuen arabera, eraginkortasuna mugatuta dago.

- Gobernuak ez dauka borondaterik giza eskubideen defendatzaileak babesteko, giza eskubideen defendatzaileek beren lanaren bidez eragin baitieziaiekete botere ekonomiko eta politikoa duten taldeei.
- Giza eskubideen defendatzaileek ez dute konfiantzarik Hondurasko erakundeetan. Oro har, hautematen da Hondurasko Gobernuak oker erabili ahal duela sistema horrek biltzen duen informazioa, hots, pertsona horien gaineko kontrola areagotzeko erabili ahal duela.
- Sistemak behar bezala funtzionatzeko behar diren aurrekontua eta baliabide teknikoak ez izatea.
- Banakako babes-neurriak. Giza eskubideen defendatzaileen premien arabera egindako neurri kolektiboak eskatzen dira, batez ere, emakumeen eta landa-komunitateen arabera (indigenak eta nekazariak barne): genero-ikuspegia eta ikuspegi diferentziala gehitu behar dira.
- Polizia-neurriak. Jakinarazi da beharrezkoa dela sisteman zerga- eta polizia-neurriak ez diren beste neurri batzuk ezartzea. Halaber, polizia-kideengan ez dago konfiantzarik, erakutsi baita kidego horrek eta egitura kriminalak loturak dituztela; eta giza eskubideei eta generoari buruz oso gutxi dakitelako. Gainera, gizarte-mugimenduak erreprimitzen dituzten Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoetako batekoak dira. Horiek horrela, haiek eskatzen dute polizia-bizkartzainen orde, komunitateen konfiantza duten pertsonak bizkartzainak izatea.
- Prebentzio-ikuspegia. Gaur egun, asistentzia-ikuspegitik garatzen da sistema, hau da, ondorioei baino ez die erreparatzen, eta, hartara, segurtasun-neurri erreaktiboak eta banakakoak ezartzen ditu. Beharrezkoa da mailaka babes osoko eta babes kolektiboko prebentzio-sistema bat ezartzea, giza eskubideen defendatzaileen aurkako indarkeriaren egitura-kausak aztertzeko eta defendatzaileen lana publikoki legitimizatzeko.
- Arrisku-analisiak berandu egitea, eta, ondorioz, babes-neurriak ere berandutzea.

Giza Eskubideen Idazkaritzak jakinarazi digu mekanismoan hiru neurri mota daudela babes emateko: **prebentzio-neurriak** (nazioko eta nazioarteko behatzaileei eskaintzen zaien laguntza, lanaren meritua aitortzeko ekitaldiak, ikerketen jarraipenari buruzko errekerimenduak epai-agintariei eskatzea...); **babes-neurriak** (bizkartzainak, txaleko blindatuak, ibilgailu blindatuak, alarmak, asistentzia-botoiak, komunikazio-gailuak, aldi baterako lekualdaketak...); eta **neurri kolektiboak** (komunitateko alarmak, komunitatearen segurtasun-aterpeak...). Eta hiru dira arriskua zehazteko aldagaiak: kalte egiteko asmoa; testuingurua (orokorra eta espezifikoa); eta zaurgarritasuna (laneko ingurunea eta profila). Amerikako Estatu Batzuen Nazioarteko Garapenerako Agentziak (USAIDek) mekanismoa garatzen laguntzen du.

Jakinarazi digu 2015ean ekin ziotela giza eskubideen defendatzaileak babesten ikasteko prozesu bati. Prozesu hori osatu da beste herrialde batzuetan (adibidez, Kolonbian eta Mexikon) egin diren jardunbide egokiez. Horrez gain, neurriak ezartzeko ardura duten Polizia Nazionaleko kideek giza eskubideetako eta bake-kulturako trebakuntza-prozesuetan parte hartu dute.

Onartu egin du beharrezkoa dela prebentzio-ikuspegia gehiago lantzea (eta bereziki nabarmentzen du LGTBI pertsonen egoera), eta mesfidantza handia dagoela haien lanean. Horrekin batera aipatzen du prozedura eta arauak ez direla ezagutzen, eta azpimarratu egiten du pertsona babestuen borondatek abiatzen dela prozedura.



Euskal Ordezkaritza Giza Eskubideen Idazkaritzarekin bilduta, Tegucigalpa.

Babes Mekanismoaren Batzorde Teknikoak¹⁴ egiten dituen arrisku-analisen denbora bi eta lau aste bitartekoa izaten da, legean ezarrita dagoen bezala. Adierazi digu atzerapenak gertatzeko arrazoiak haxe dela: giza eskubideen defendatzaileek prozesuarekin aurrera jarraitzeko baimena ez ematea. Bestalde, azpimarratu egin du egoera

larria denean, prebentzio-neurriak ezartzen direla, analisia egin bitartean.

Azkenik, adierazi dute Fiskaltzari ez diotela bidaltzen balizko delituei buruzko txostenik, Fiskaltza batzorde teknikoko kide delako, eta bertan dagoelako, azterketak egiten direnean. Ministerio Publikoak berak ofizioz ekiten die prozedurei, giza eskubideen defendatzaileen aurkako delitu-aztarnak egonez gero.

Amaitzeko, OACNUDHk aintzat hartu du Babeserako Mekanismo Nazionala urrats garrantzitsua dela, baina gaineratu du horrekin batera beharrezkoa dela giza eskubideen sistema oso bat guztion artean eraikitzea. Ondo iritzi dio Babes Mekanismoaren Batzorde Teknikoaren lanari. Zehazki, batzordeak arrisku-analisiak egiten ditu, eta OACNUDHk parte hartzen du, behatzaile moduan. Hala eta guztiz ere, aipatu egin du Estatuko erakunde batzuek ez dutela parte hartzeko konpromisoa hartu, nahiz eta legeak parte hartzera behartu. Erakunde horietako bat Estatuko Fiskal Orokorra da; fiskalak ez du parte hartzen, edo erabakiak hartzeko ahalmenik ez dituen funtzionarioak bidaltzen ditu saioetara. Aintzat hartu du babes kolektiboa eta protokolo bereziak oraindik ere erronka handiak direla.

Ministerio Publikoa

2018ko martxoan Giza Eskubideen Defendatzaileen Babeserako Fiskaltza Berezia sortu zen. Hiru jardute-esparru dauzka: prebentzioa, babesa eta ikerketa. Gainera, Fiskaltzak parte hartzen du Babes Mekanismoarako Batzorde Teknikoan; hortaz, ahalmena dauka arrisku egoeran dauden giza eskubideen defendatzaileak babesteko neurrietan eragina izateko.

¹⁴ CTMP (Babes Mekanismoaren Batzorde Teknikoa) arrisku-analisiak egiteaz eta Babeserako Sistemaren Zuzendaritza Orokorrean aurkeztzen diren babes-eskaerak eztabaidatzeaz eta erabakitzeaz arduratzen da.

Fiskaltzak adierazi digu giza eskubideen defendatzaileek ez dutela konfiantzarik erakundeetan, beraz, ez dute Ministerio Publikora jotzen, eta ez dute ministerioarekin batera jarduteko asmorik. CONADEHK aurkezten dituen salaketan eta Fiskaltzak egiten dituen ikerketa-prozesuen arteko koordinazioari buruzko kritikak aipatu genizkion. EAeko ordezkarioi Errepublikako Kongresuko Justiziaren eta Giza Eskubideen Batzordeak ere kritika horiek jakinarazi zizkigun, gizarte-erakundeekin eta mugimenduekin batera. Izan ere, Kongresuko kide batzuek adierazi ziguten erakunde biak elkarri lotzeko aukeraren aurkako oposizioa dagoela, eta, horri dagokionez, Aliantza Patriotikoa nabarmendu zuten. Erantzun gisa esan zigun koordinazio-mekanismo bakarra eratu beharra dutela, giza eskubideen urraketari buruzko salaketak jaso ditzan. Horren harira, azpimarratu dute CONADEHK bidaltzen dituen txostenak kontuan hartzen dituela, ikerketa-erakunde gisa.

Giza Eskubideen aldeko Hondurasko komisario nazionala (CONADEH)

SG-05-2018 Ebazpenaren bidez, Defentsa arteko Koordinazio Unitatea sortu zen, eta horri buruzko informazioa eman digute. Giza eskubideen defendatzaileei arreta emateko sortu da, eta aukera ematen du egoera hobeto aztertzeko eta komunitateekin zuzeneko harremana garatzeko, komunitateen lurraldean bertan.

Konstituzio-aginduaren arabera, Gobernuak kontrolatzeko funtzioa dauka. Babeserako Mekanismoaren



jarraipena egiten du. Horrez gain, gizarte-erakundeekin eta mugimenduen kritikak berretsi ditu, babes-neurriak ezartzeko berandutzari buruz. Askotan ez dago behar bezalako babesik, erasoak gertatu aurretik. Horregatik, presio-ekintzak egiten ari dira, babes-neurriak giza eskubideen defendatzaileen arrisku-egoeretara hobeto egokitzeke.

Horrez gain, giza eskubideen urraketari buruzko salaketak jasotzeko eta haiei arreta emateko funtzioa ere bete behar du. 2018an, 9.700 kexa

jaso zituen, gehienak bizi-eskubidearen urraketari buruzkoak. Barneko lekualdaketei dagokienez, Barneko Lekualdaketen eta Nazioarteko Babesaren Unitateak 861 kasu jaso zituen aurreko urtean; ACNUR agentziarekin, Iheslarien Norvegiako Kontseiluarekin eta CICR Gurutze Gorriaren Nazioarteko Batzordearekin batera jarduten du.

Azkenik, beren lana egiteko laguntzarik ez jasotzea, aurrekontu eskasa edukitzea eta giza baliabide urriak izatea salatu dituzte. Gainera, giza eskubideen defendatzaileek CONADEHren lanean konfiantza dute, Estatuko erakundeetan ez bezala.

Nazioarteko erakunde eta instituzioak

Nazioarteko erakundeek adierazi dute diplomatikoen kidegoen eraginak behera egin duela giza eskubideen defendatzaileak babesteko jardueran.

OACNUDHk jakinarazi digu aldeak daudela Europar Batasuneko enbaxadekiko harremanen artean. Horren harira, Espainiako eta Alemaniako kooperazioa nabarmendu dute.



Euskal Ordezkaritza Nazio Batuen Erakundeko Giza Eskubideen mandatariaren herrialde ordezkariarekin (OACNUDH), Tegucigalpa.

Giza eskubideen eta giza eskubideen defendatzaileen egoeraren egiaztapena eta jarraipena egiteko nazioarteko misioak

Bisita horien eragin ona eta garrantzia azpimarratu dituzte, erasoak murrizteko eragina izaten dutelako; hortaz, ezinbesteko laguntza da giza eskubideen defendatzaileentzat, beren kolektiboentzat eta komunitateentzat. «Ez gaude bakarrik».

Giza eskubideen defendatzaileak babesteko programak

Instituzioek, erakundeek eta gizarte-mugimenduek oso egoki irizten diete babeserako nazioarteko programei, Hondurasko giza eskubideen defendatzaileen egoera larria dela eta.

ONDORIOAK

EAEko ordezkariok Hondurasen izan dugun harrera eskertzen diegu giza eskubideen erakundeei eta gizarte- zein herri-mugimenduei. Horrez gain, esker ona adierazi nahi diegu bizitzaren duintasuna eta lurraldea babesteko lan nekazaria egiteagatik. Esker berezia adierazi nahi diegu COFADEH Hondurasen desagerrarazi dituzten Atxilotuen Senideen Batzordeari, La Vía Campesina mugimenduari, CNTC Nekazarien Koordinazio Nazionalari, Nuevo Amanecer nekazaritza-komunitateari eta Berta Cáceresen familiari. Haiek guztiek eskuzabaltasun handiz partekatu dituzte beren proposamenak, minak eta gizarte eraldatzeko itxaropena.

Horrez gain, Hondurasko erakunde publikoek, Espainiako enbaxadak eta OACNUDH Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen Goi-komisarioaren Hondurasko Bulegoak eskaini diguten denbora eta elkarlana ere eskertzen ditugu.

Ordezkariorik konpromisoa hartzen dugu giza eskubideen defendatzaileen, haien kolektiboan eta komunitatean egoerari adi egoten jarraitzeko eta haien jardunean behar duten segurtasuna zaintzeko. Aldi Batez Babesteko Euskal Programaren bidez babesten ditugun pertsonen eta haien erakundeei (COFADEHri eta INHESCORi) arreta berezia emango diegu. Horrez gain, EAEko ordezkariok bereziki zainduko ditugu bisitaldian hartu ditugun konpromisoak, bereziki, honako hauek: Berta Cáceresen hilketaren justiziaz ebazten laguntzea eta biztanle indigena lenkak eta La Paz departamentuko nekazarien komunitateak beren lurra uztera behartzeko gertaeren jarraipena egitea.

Horiek horrela, EAEko ordezkariok hauxe **ADIERAZTEN DUGU**:

LEHENA: EAEko ordezkariok **begirune, babes eta elkartasun** handiena adierazten diegu **giza eskubideen defendatzaileei**, baita haien kolektiboari eta komunitateari ere. Halaber, publikoki adierazten dugu aintzat hartzen dugula haien lana; politika eraldatzeko, giza eskubideen defentsa baketsua egiteko eta pobreziarik eta indarkeriarik gabeko herrialdea eraikitzeko lana, hain zuzen ere. Gainera, gure egiten ditugu haien aldarrikapenak: justizia, bakea eta militarizazioaren, kriminalizazioaren eta hitzaldi fundamentalisten amaiera.

BIGARRENA: Herrialdearen egoerak kezkatzen gaitu; hortaz, salatu egiten ditugu herritarren pobrezia orokortua, LGTTBI pertsonen aurkako indarkeria feminizidak, marek eragindako indarkeria, oposizio politikoari egiten zaion jazarpena eta erauzketa-enpresen jardunaren ondorioz gauzatzen diren lurra utzarazteko ekintzak. Halaber, salatu egiten ditugu tokiko eragileek, erauzketa-enpresek eta Estatuko, Elizako eta Segurtasun Indar estataletako eta paraestataletako ordezkariak bultzatzen dituzten mehatxuak, utzarazte behartuak, kriminalizazio- eta judizializazio-prozesuak eta estigmatizazioa. Honako hauek jasaten dituzte ekintza horiek: giza eskubideen defendatzaileek, herri indigenek, afrikar ondorengoen eta nekazarien komunitateek, lurraren, lurraldearen eta ondasun erkidegoen defendatzaileek, aniztasun sexualaren defendatzaileek, emakumeen eskubideen defendatzaileek eta dibertsitate funtzionalaren defendatzaileek.

Testuinguru horretan ohikoak izaten dira **mehatxuak eta indarkeria**; izan ere, EAEko ordezkariok egoera horren berri eman digute gizarte-erakundeek eta -mugimenduek, baina, horrez gain, beste erakunde batzuekin eta nazioarteko organismoekin izan ditugun bileretan ere berretsi dute. Horrekin batera, hauteskundearen osteko kale-agerraldietan giza eskubideen urraketa larriak ere gertatu ziren.

Horren ondorioz, milaka pertsona herrialdeetik irtetera behartzen dituzte, eta beste batzuek beste herrialde batzuetara ihes egin behar dute, babes bila.

HIRUGARRENA: Gure kezka adierazi nahi dugu **zigorgabetasun**-maila handia dela eta. Zigorgabetasuna are handiagoa da honako pertsona hauek justizia eskatzen dutenean: herri indigenek; lurra, lurraldea eta ondasun erkideak defendatzen dituzten nekazarien komunitateek; LGTTBI pertsonen eta emakumeen giza eskubideak defendatzen dituzten erakundeek.

LAUGARRENA: Aintzat hartzen ditugu giza eskubideen arloko **aurrerapenak**, hala nola *Mecanismo de Protección para Personas Defensoras de Derechos Humanos, Periodistas, Comunicadores Sociales y Operadores de Justicia* [Giza eskubideen defendatzaileak, kazetariak, gizarte-komunikatzaileak eta

justizia-operadoreak babesteko mekanismoa] eta *Sistema de Monitoreo de Recomendaciones de Derechos Humanos de Honduras* [SIMOREH, giza eskubideei buruzko gomendioak Hondurasen betetzen diren egiaztatzeko sistema]. Espero dugu aurrerapen horiek finkatzea.

Egoera horren aurrean, EAeko ordezkariok hauxe **GOMENDATZEN DUGU**:

- Giza eskubideen defendatzaileak babesteko eta defendatzaileei laguntzeko mekanismoak garatzen eta indartzen jarraitzea, erakundeen arteko artikulazioa, laguntza politikoa eta aurrekontuen esleipena indartuz (batez ere, CONADEHri eta Babeserako Sistema Nazionalari dagokienez), giza eskubideen defentsaren eta sustapenaren alde jarduten duten nazioarteko organismoen, erakundeen eta instituzioen lankidetzarekin batera.
- Babes osoko eta babes kolektiboko neurriak diseinatzeko eta ezartzeko prebentzio-ikuspegian aurrera egitea, landa-komunitateen egoerari (nekazariei eta herri indigenei), emakumeei eta LGTBI pertsoneri (ikuspegi bereizia eta genero-ikuspegia) erantzuteko, bai eta giza eskubideen defendatzaileen aurkako erasoen kasuak ezabatzeko estrategiak eta jarduketak garatzeko ere.
- Bizitzaren alde jarduten duten komunitateen eta kolektiboen lana aintzat hartzea eta lan horren balioa publikoki aitortzea; pertsona horiek gizarte bidezkoagoa eta ekitatiboagoa eraikitzen laguntzen dutela aintzat hartzea; eta berme politikoak abiaraztea, pertsona horien eskubide guztiak benetan errespetatzeko, haien lanaren garapena ez oztopatzeko, pertsona horiek ez kriminalizatzeko eta pertsona horiek kriminalizatzen dituzten ekintzak zehatzeko.
- Nahitaez bete behar diren giza eskubideen aldeko nazioarteko tratatuak betetzea, besteak beste, Lanaren Nazioarteko Erakundearen 169. Hitzarmena, hitzarmen horretan ezarrita baitago bizitzaren eta lurraren jabetzaren aspaldiko tituluen aurka egiten duten erauzketa-enpresak instalatu aurretik, lurralde horietako biztanleei galdetu behar zaiela, eta kontsultek askeak eta informatuak izan behar dutela.
- Emakumearen aurkako bereizkeria mota guztiak ezabatzeari buruzko hitzarmenean (CEDAWen, ingelesezko izenaren arabera) ezarritako aukerako protokoloa berrestea. Tresna hori funtsezkoa da emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko eta askatasunez gabetzen ez duten neurriak feminizidioen kasuetan ez aplikatzearen aldeko borrokan.
- Kontuan hartzea Landa-eremuetan jarduten duten nekazarien eta beste langile batzuen eskubideen aldeko Nazio Batuen Erakundearen adierazpena, politika publikoak definitzeko. Hori aurrerapauso handia izan daiteke, eskubideak eta babesa aitortzeko.
- Ministerio Publikoaren lana sustatzea, organo eskuduna baita giza eskubideen defendatzaileek, haien erakundeek, kolektiboek eta komunitateek jasaten dituzten mehatxuak, jazarpenak eta erasoak ikertzeko agindua emateko. Eta, halaber, lan horretan, zigorgabetasuna ezabatzeko ahalegina areagotzea, Fiskaltza Orokorreko unitate espezializatuen arteko artikulazioa sustatzeko.
- Lurra era bidezkoan eskuratzeko behar diren neurriak abiaraztea; eta, helburu horretan, kriminalizazioaren gaineko ikuspegia aldatzea (zehazki, lurraren usurpatze-delituei dagokienez) eta gatazka horien azpiko egitura-kausei (lurra eskuratzeko aukera ezberdinei) heltzea.

BIBLIOGRAFIA

TXOSTENAK

Aldarte (2017): *Sexu eta Genero Aniztasuna Hondurasen Txostena* (Tegucigalpa eta La Ceiba).

Amnistía Internacional (2018): *Informe Anual. La situación de los derechos humanos en el mundo 2017-2018*.

Amnistía Internacional (2018): *Prohibido protestar: uso de la fuerza y detenciones arbitrarias como estrategia para reprimir la disidencia en Honduras*.

CEAR-Euskadi (2018): *Informe Delegación Vasca. Misión de seguimiento al retorno, Honduras 2017*. [EAEko ordezkarien txostena. Itzuli ondoko jarraipen-misioa, Honduras 2017].

Coalición contra la impunidad (2018): *Honduras: monitoreo de violaciones de derechos humanos en la coyuntura del fraude electoral*.

COFADEH: *Diagnóstico situacional: Defensores y defensoras indígenas de La Paz*.

Fundación Abogacía Española, Observatoire International des Avocats (2018): *Informe de la Misión de Observación. Caso Berta Cáceres. 2018-10-26tik 2018-11-04ra*

Global Witness (2017): *Honduras, el país más peligroso para defender el planeta*. Londres, 2017ko urtarrila.

Nazio Batuen Erakundea (2019): *Informe anual del Alto Comisionado de las Naciones Unidas para los Derechos Humanos sobre la situación de los derechos humanos en Honduras*. [Giza eskubideen aldeko Nazio Batuen Goi-komisarioaren urteko txostena, giza eskubideek Honduras duten egoerari buruzkoa]. Giza Eskubideen Kontseiluko Batzar Orokorra. Saioen 40. aldia. 2019ko otsailaren 25etik martxoaren 22a arte.

Nazio Batuen Erakundea (2018): *Las violaciones de derechos humanos en el contexto de las elecciones de 2017 en Honduras. Informe del Alto Comisionado de las Naciones Unidas para los Derechos Humanos*. [Giza eskubideen urraketak, Hondurasko 2017ko hauteskunde-aldian. Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen Goi-komisarioaren txostena].

Nazio Batuen Erakundea (2017a). *Informe del Relator Especial sobre las ejecuciones extrajudiciales, sumarias o arbitrarias acerca de su misión a Honduras. [Judizioz kanpoko hilketei, hilketa sumarioei eta hilketa arbitrarioei buruzko txostena. Errelatore bereziak egina, Hondurasko misioaren esparruan]*. Giza Eskubideen Kontseiluko Batzar Orokorra. A/HRC/35/23/1. Add, 2017ko apirilaren 11.

Nazio Batuen Erakundea (2017b). *Informe anual del Alto Comisionado de las Naciones Unidas para los Derechos Humanos sobre la situación de los derechos humanos en Honduras*. [Giza eskubideen aldeko Nazio Batuen Goi-komisarioaren urteko txostena, giza eskubideek Honduras duten egoerari buruzkoa]. Giza Eskubideen Kontseiluko Batzar Orokorra. A/HRC/34/3/2. Add, 2017ko otsailaren 9a.

Nazio Batuen Erakundea (2017c). *Observaciones finales sobre el segundo informe periódico de Honduras. [Hondurasi buruzko bigarren aldizkako txostenaren gaineko azken oharrak]*. Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna, Giza Eskubideen Batzordea. CCPR/C/ESP/CO/2, 2017ko abuztuaren 22a.

Nazio Batuen Erakundea (2016a). *Informe de la Relatora Especial sobre los derechos de los pueblos indígenas sobre su visita a Honduras. [Herri indigenen eskubideei buruzko txostena. Errelatore bereziak egina, Hondurasko bisitaldiaren esparruan]*. Nazio Batuetako Giza Eskubideen Kontseiluko Batzar Orokorra. A/HRC/33/42/2. Add, 2017ko uztailaren 21a.

Nazio Batuen Erakundea (2016b). *Informe del Relator Especial sobre las ejecuciones extrajudiciales, sumarias o arbitrarias acerca de su misión a Honduras. [Hondurasen barnealdean lekuz aldarazi dituzten pertsonen giza eskubideei buruzko txostena. Errelatore bereziak egina, Hondurasko misioaren*

esparruan]. Giza Eskubideen Kontseiluko Batzar Orokorra A/HRC/32/35/4. Add, 2016ko apirilaren 5a (2016ko maiatzaren 31n argitaratu zen, arrazoi teknikoak direla-medio).

Nazio Batuen Erakundea (2016c). *Observaciones finales sobre el informe inicial de Honduras. [Hondurasi buruzko bigarren aldizkako txostenaren gaineko azken oharra]*. Langile migratzaile guztien eta haien familien eskubideen aldeko Nazio Batuen Erakundeko Babes Batzordea. CMW/C/HND/CO/1, 2016ko urriaren 3a.

Nazio Batuen Erakundea (2016d). *Observaciones finales sobre el segundo informe periódico de Honduras. [Hondurasi buruzko bigarren aldizkako txostenaren gaineko azken oharra]*. Eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen aldeko batzordea, Nazio Batuen Erakundeko Kontseilu Ekonomikoa eta Soziala. E/C.12/HND/CO/2, 2016ko uztailaren 11.

Giza eskubideen defendatzaileak babesteko behatokia (2017): *Honduras: Estigmatización pública de parte del Estado hondureño contra la Coalición contra la Impunidad [Honduras: Zigorgabetasunaren aurkako koalizioaren aurkako estigmatizazio publikoa, Estatuaren eskutik]*. 2017ko uztailaren 12a. Torturaren aurkako Mundu Erakundea (OMCT) eta Giza Eskubideen Nazioarteko Federazioa (FIDH).

Europako Parlamentua (2016): *Europako Parlamentuaren Ebazpena, 2016ko apirilaren 14koa, giza eskubideen defendatzaileek Hondurasen bizi duten egoerari buruzkoa*. 2016/2648 (RSP).

PBI Honduras (2017): *PBI Honduras* aldizkaria. Peace Brigades International, 2017ko abendukoa.

Giza Eskubideen aldeko Hondurasko sare nazionala (2018). *Informe sobre la situación de defensoras 2017-2018. Defender para vivir*. [Defendatzaileen egoerari buruzko txostena. 2017-2018. Bizirik irauteko defentsa]. Tegucigalpa, 2018ko maiatza.

DOKUMENTUAK ETA KOMUNIKATUAK

Ekintza Plana, Giza Eskubideen Defendatzaileen Munduko Kongresua. Paris, 2018.

[Plan de Acción, Cumbre de París, octubre 2018.](#)

BASTA YA: Giza eskubideen defendatzaileak eta haien komunitateak babesteari ekiteko deia. Paris, 2018.

[BASTA YA: Llamado a la acción para proteger a las defensoras de derechos humanos y sus comunidades](#)

WEBGUNEAK

Amnistia Internazionala: web-orri orokorra da, eta Hondurasi buruzko informazioa jasota dago.

<https://www.amnesty.org/es/countries/americas/honduras/>

CEAR. Maras, la guerra no encontrada

<https://www.cear.es/sections-post/maras-guerra-no-encontrada/>

CEAR-Euskadi. Giza Eskubideen Defendatzaileak Aldi Batez babesteko Euskal Programa

<https://www.cear-euskadi.org/que-hacemos/proteccion-a-defensoras-de-los-derechos-humanos/>

CEAR-Euskadi. Proteger a quien defiende [Defendatzaileak babestea]

<https://defensoras.cear-euskadi.org/>

CEM-H, Centro de Estudios de la Mujer Honduras

<http://www.cemh.org.hn/>

Centro de Estudio para la Democracia (CESPAD)

<https://cespad.org.hn/>

COFADEH, Comité de Familiares de Detenidos Desaparecidos en Honduras [Hondurasen desagerrarazi dituzten atxilotuen senideen batzordea]

https://www.facebook.com/profile.php?id=100004767908229&hc_ref=SEARCH&fref=nf

Giza eskubideen Batzorde Interamerikarra: giza eskubideen egoera Hondurasen

<http://www.oas.org/es/cidh/multimedia/2016/Honduras/Honduras.html>

Defensores en línea

<http://defensoresenlinea.com/>

Iniciativa Mesoamericana de Mujeres Defensoras de Derechos Humanos [Giza eskubideen emakumezko defendatzaileen Erdialdeko Amerikako ekimena]

<http://im-defensoras.org/?cat=20>

MACCIH-OEA, Misión de Apoyo Contra la Corrupción y la Impunidad en Honduras de la Organización de Estados Americanos [Amerikako Estatuaren Erakundearen misioa, Hondurasko ustelkeriaren eta zigorgabetasunaren aurka borrokatzen laguntzeko]

<http://www.oas.org/es/sap/dsdme/maccih/new/mision.asp>

Mundubat

<http://www.mundubat.org/>

Nazio Batuen Erakundea: OACNUDHren web-orri orokorra, Hondurasi buruzkoa

<http://www.ohchr.org/SP/Countries/LACRegion/Pages/HNIndex.aspx>

Peace Brigades International (PBI), Hondurasko proiektua

<http://www.pbi-honduras.org/??&L=0>

Radio Progreso

<http://radioprogreso.hn.net/>

ERANSKINA

BABESERAKO SISTEMA NAZIONALA

Giza Eskubideen Defendatzaileak, Kazetariak, Gizarte Komunikatzaileak eta Justizia Operadoreak defendatzeko Sistema Nazionala atxikita dago Hondurasko Gobernuaren Giza Eskubide, Justizia, Gobernazio eta Deszentralizazio Idazkaritzari. Babes Legean oinarrituta eratu da unitate hori.

Sistemak, Babes Legearen 19. artikulua arabera, eginkizun hau bete behar du: «beste erakunde publikoekin eta, oro har, herritarrekin koordinazio-oinarriak finkatzea, politika publikoan eta giza eskubideen plan nazionalan babes eraginkorra bermatzeko. Horrez gain, legea aplikatzeko ekintzak, araudiak eta baliabideak biltzen ditu». Honako hauek izango ditu kide: 1) Estatuko Idazkaritza organo gidaria, Giza Eskubideak, Justizia, Gobernazioa eta Deszentralizazioa kudeatzeko bulegoetan; 2) Babeserako Kontseilu Nazionala; 3) Babeserako Sistemaren Zuzendaritza Nagusia; 4) Babes Mekanismoaren Batzorde Teknikoa; 5) Estatuko Idazkaritzaren Giza Eskubideen Saila, Segurtasun Bulegoa.

GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO HONDURASKO KOMISARIO NAZIONALAK (CONADEH)¹⁵

Herrialdeko 18 departamentuetan dago, eta titularra sei urtean behin hautatzen da. Gaur egungo komisarioa, Roberto Herrera Cáceres, 2014ko martxoan hasi zen komisario jarduten.

Estatuak sortu duen erakunde independentea da, giza eskubideak Hondurasen zaintzeko, sustatzeko, babesteko eta defendatzeko. Txosten tematikoak eta urteko txostena egiten ditu. Ahalmena dauka ikerketa-prozesuetan gomendioak egiteko. Gobernuak ez dauka gomendioak erantzuteko betebeharririk.

CONADEHk Babes Legea ezartzen lagundu du, Babes Kontseiluan aholku emanez eta parte hartuz. Protokoloak eta arrisku-azterketak egiten, jarraipen egokia gauzatzen eta prebentzioa ematen ere laguntzen du.

Justiziaren, Giza Eskubideen eta Bake Kulturaren arloko Hezkuntzarako Plan Nazionala ezartzeko neurri gisa, CONADEHk babeserako sistemari buruzko prestakuntza-prozesuak egin ditu azken urteotan, erakundeetako langileei zuzenduta. Abokatuen Elkargoarekin jardun dute, bai eta, indarkeriaren ondorioz, eskolara ez joateko tasa oso handiak dituzten hezkuntza-zentroekin ere. Horrez gain, kazetariak trebatzeko plan bat ere antolatu dute.

Giza eskubideen urraketen gaineko salaketak eskualdeko ordezkarietara aurkezten dira, eta bertan laguntza (bizkartzainak) eskaintzen da, pertsonen osotasun fisikoa bermatzeko. Telefono-linea bat (132) ere badago, salaketak jarri ahal izateko. Beldur izateagatik, giza eskubideen defendatzaileek salaketa aurkeztu nahi ez dutenean, CONADEHk zuzenean bidaltzen dizkio kasuak Babes Mekanismo Nazionalari.

GIZA ESKUBIDEAK BABESTEKO ETA SUSTATZEKO TOKIKO SISTEMAK

Babeserako udal-mekanismo horiek babes sistematikoa emateko eta sustatzeko mekanismoak izan beharko lukete, pertsonen eta komunitateen segurtasunaren aurkako mehatxuak gertatzen direnean. Horrez gain, salaketak izapidetzeko bideak ere izango dira, eta herritarrek haien bitartez eskuratu ahalko dute Gobernu Nagusiaren, Udal Gobernuaren eta gizarte zibileko erakundeen neurriei, proiektuei, programei eta laguntzei buruzko informazioa.

GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO NAZIO BATUEN GOI-KOMISARIOAREN BULEGOA (OACNUDH)¹⁶

Nazio Batuen Erakundeko Idazkaritza Nagusiari atxikita, Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen Goi-komisarioaren Bulegoak (OACNUDH) giza eskubideak sustatzeko eta babesteko munduko lana koordinatzen du, Estatuko eta gizarte zibileko erakunde nazionalen arteko lankidetzak bultzatuz eta erakundeak sendotuz.

¹⁵<http://conadeh.hn/>

¹⁶<https://oacnudh.hn/>

Hondurasko Estatuak eta goi-komisarioak 2015eko maiatzean sinatu zuten Hondurasko bulegoa ezartzeko erabaki ofiziala. OACNUDHk erabateko agindua dauka, hau da, kooperazio teknikoa, behaketa eta informazioa. Hona hemen ahalmenak:

- Hondurasko Estatuari aholku teknikoak ematea, giza eskubideak susta ditzan eta babes-politikak eta -programak garatu eta betearazi ditzan.
- Giza eskubideen egoera nazionala kontrolatzea eta haren berri ematea.
- Herritar zibilei eta partikularrei aholku ematea, giza eskubideen sustapenari eta babesari buruz, nazioko zein nazioarteko mekanismoak ere erabiliz.
- Giza Eskubideen Kontseiluari jakinaraztea, Honduras herrialdean giza eskubideen egoera nolakoa den.

HONDURASKO USTELKERIAREN ETA ZIGORGABETASUNAREN KONTRAKO LAGUNTZA-MISIOA (MACCIH)¹⁷

Haiek proposatzen dute justizia-sistemak ematen dituen prebentzio-zerbitzuen eta ustelkeriaren eta zigorgabetasunaren aurkako zerbitzuen kalitatea honela hobetzea: ustelkeria prebenitzeko, ikertzeko eta zehatzeko ardura duten Estatuko erakundeen parte-hartze kolektiboa, aholkularitza, gainbegiratzea eta ziurtatzea sustatuz. Honako hauek dira printzipio gidariak: independentzia, autonomia, profesionaltasuna, neutraltasuna eta gardentasuna.

DIPLOMAZIAKO KIDEAK

Enbaxadek Hondurasko erakundeak sendotzeko agindua dute; horretarako, politika publikoen eraginkortasuna sustatu behar dute, giza eskubideen arloko aholkulari teknikoen, prestakuntza-ekintzen eta sentsibilizazio-jardueren bidez.

¹⁷<http://www.oas.org/es/sap/dsdme/maccih/new/mision.asp>



Tegucigalpako kaleak